



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

553/2014 FORU AGINDUA, urriaren 20koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako definitu den «terminal fiskala»ren sistema zer jarduera sektoreri aplikatu dakiekeen ezarri eta haren aplikaziorako baldintzak finkatzen dituena.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamendua onartzen duen urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuak araubide iragankor bat jasotzen du seigarren xedapen iragankorrean 2013ko zergaldian zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatu duten zenbait zergadunentzat.

Xedapen iragankor horrek zuzeneko zenbatespenaren modalitate erraztuko erregela bereziak ezartzen ditu jarduera ekonomikoaren etekin garbia 2014, 2015 eta 2016ko zergaldietan kalkulatzeko.

Xedapenaren 7. apartatuan «terminal fiskala»ren sistema arautzen da, eta bertan ezartzen da sistema horretara bildu ahal izango direla Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen dituen jarduera sektoreetan dauden zergadunak, betiere xedapenaren 1. apartatuko baldintzak betetzen badituzte.

«Terminal fiskalaren» sistema hori software informatiko batean oinarritutako fakturazio sistema bat da, erabilgarria izango dena salmentan edo zerbitzu prestazioan egindako fakturak prozesatu, erregistratu eta kudeatzeko, eta haien inguruko informazioa Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerbitzari batera bidaltzeko. Softwarea Ogasun eta Finantza Departamentuak jartzen du eskura.

«Terminal fiskalaren» sistemarekin, zergadunak 100eko 75eko portzentajea aplikatu dezake gastu kengarri gisa etekin garbia kalkulatzeko (portzentaje orokorra 100eko 65 da).

Seigarren xedapen iragankorrak 7. apartatuan dioen bezala, «terminal fiskalaren» sistemara biltzeko, zergadunek Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartuko duen dokumentua izenpetu beharko dute.

Aipatutako dokumentua formalizatuz gero, zergadunak hurrengo zergalditik aurrera aplikatu ahal izango du 100eko 75eko portzentaje hori gastu kengarri gisa (lehen paragrafoan adierazitako denbora mugarekin). Dena den, zergaduna 2014ko azaroaren 10a baino lehen biltzen bada sistemara, 2014ko zergaldian ere aplikatu ahal izango du esandako portzentajea.

Foru agindu honen xedea da ezartzea zer jarduera sektoretan aplika daitekeen «terminal fiskalaren» sistema eta zer baldintza bete behar diren hura aplikatzeko. Orobat, sistema horri atxikitzeak agiria onartzea ere du helburu.

Horiek horrela, hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. «Terminal fiskalaren» sistema aplika dezaketen jarduera sektoreak.

Autotaxi bidezko garraio sektoreari, eta horri bakarrik, aplikatuko zaio pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduak seigarren xedapen iragankorraren 7. apartatuan aurreikusten duen «terminal fiskalaren» sistema. Sektore horri 721.2 epigrafea dagokio Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen I. Eranskinean –Tarifak–.

2. artikulua. «Terminal fiskalaren» sistema aplikatzeko baldintzak.

1. «Terminal fiskalaren» sistemara pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak bildu daitezke, baldin eta 1. artikuluan aipatutako sektoreko jarduera ekonomikoren bat egiten badute eta aurreko lehen zergaldian pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, seigarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezartzen dituen baldintzak bete badituzte. Sistema horretara biltzeko, 3. artikuluan xedatutakoari jarraitu behar zaio.

2. «Terminal fiskalaren» sistema aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Praktika onen ziurtagiri bereizgarria ongi ikusteko tokian jartzea.
- b) Smartphone, tablet edo antzeko gailu bat edukitzea, eta hura erabiltzeko sistema operatiboa Android edo iOS bateragarria izatea. www.ekonomiagardena.net webgunean sistema operatiboen bertsio onartuei buruzko informazio eguneratua jarriko da eskura.
- c) Ogasun eta Finantza Departamentuak hornitutako hardwarea eta softwarea erabiltzea ematen diren zerbitzuen kobrantza-eragiketak prozesatu eta erregistratzeko, betiere ziurtatuta sistemarekin jarraitzeko bitartekoak eskuragarri izango direla, hala nola ordezkotokiak, taloitegiak, etab.
- d) Sistemak arazoren bat badu eta haren ondorioz faktura ezin bada inprimatu, eskuz beteko da, Ogasun eta Finantza Departamentuak horretarako emandako taloitegia erabilita, eta datuak geroago sartuko dira sistema informatikoan, arazoa behin konponduta.

Aurreko baldintzetako edozein ez betetzeak berekin ekarriko du zergaduna sistematik kanpo geratzea.

3. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduak seigarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan aurreikusitakoarengatik, zergaldi batean ez badira aplikagarriak xedapen iragankor horretan zuzeneko zenbatespenaren modalitate errazturako ezartzen diren erregela bereziak, «terminal fiskalaren» sistema ezingo da aplikatu zergaldi horretan, ezta hurrengoetan ere, non eta zergaduna ez den berriro biltzen sistemara.

3. artikulua. «Terminal fiskalaren» sistemara biltzeko prozedura.

1. «Terminal fiskalaren» sistemara biltzeko, zergadunak foru agindu honetan eranskin gisa ageri den dokumentua aurkeztu behar du, behar bezala sinatuta. Bi tokitan egin dezake aurkezpena: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan edo, bestela, zerga kudeatzen duen bulegoan (Donostiako Errotaburu pasealekuko 2 zenbakian).

Dokumentua aurkezteko epea atxikimenduak ondorioak sortu behar dituen zergaldia hasi aurreko urteko azaroaren 1etik 30era bitartekoa izango da.

Aurrekoa hala izanik ere, zergadunak 2014ko azaroaren 10a baino lehen aurkezten badu dokumentua, atxikimenduak 2014ko zergaldian ere izango ditu ondorioak.

2. Aurreko apartatuko bigarren paragrafoan aipatutako epea amaituta, Ogasun eta Finantza Departamentuak terminal fiskalaren hardwarea eta softwarea emango dizkie sistemara bildu diren zergadunei.

3. «Terminal fiskalaren» sistemara 2.1 artikuluan eta aurreko 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera biltzeak indarrean jarraituko du aplikagarria den hurrengo urteetarako ere, salbu eta zergadunak atxikimendua errebokatzen duenean edo sistematik kanpo geratzen denean 4. artikuluan jasotako eran.

4. artikulua. Atxikimendua errebokatzea eta «terminal fiskalaren» sistematik kanporatzea.

1. «Terminal fiskalaren» sistemara bildutako zergadunek euren atxikimendua erreboka dezakete 3.1 artikuluko bigarren paragrafoan aipatzen diren daten barruan, bidezko komunikazioa aurkeztuta dela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan, dela zerga kudeatzen duen bulegoan (Donostiako Errotaburu pasealekuko 2 zenbakian). Bajak hurrengo zergalditik aurrera izango ditu ondorioak.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduak, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuak, seigarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan aurreikusten dituen baldintzak ez betetzeak berekin ekarriko du «terminal fiskalaren» sistematik kanpo geratzea.

Orobat, 2.2 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen ez dituzten zergadunak «terminal fiskalaren» sistematik kanpo utz ditzake Ogasun eta Finantza Departamentuak. Interesdunari kanporatze horren berri eman behar zaio, neurriaren arrazoiak azalduz eta ondorioak noiz hasten diren adieraziz.

3. Atxikimendua errebokatzen badu edo sistematik kanpo geratuz gero, zergadunak Ogasun eta Finantza Departamentuari itzuli beharko dizkio haren eskutik jaso dituen hardwarea eta softwarea.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Ogasun eta Finantza Departamentuak lankidetzaz hitzarmenak izenpe ditzake autotaxi bidezko garraio sektorea ordezkatzeko duten entitate edo antolakundeekin, sistemaren kudeaketan lagundu dezaten eta, horrela, haren aplikazioa erraztu dadin.

AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko urriaren 20a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta
Finantza Departamentuko foru diputatua. (9418)

